

BITARTEKARITZA ETA GIZARTE LANGINTZA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA

Irakaslea: Edurne De Juan

Ikaslea: Nerea Carmona, Nerea Gonzalez, Maria Perez Olamendi,
Irene Ormazabal eta Itsaso Markinez

Ikasturtea: 2018-2019

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	3
1. BITARTEKARITZA ETA BITARTEKARITZA GIZARTE LANGINTZAREN ESKU HARTZE BEZALA	3
2. BITARTEKARITZA FAMILIAREN GATAZKETAN.....	8
3. BITARTEKARITZA ESKOLA EREDUAN.....	12
4. KOMUNITATEKO BITARTEKARITZA	17
5. JUSTIZIA KONPONARAZLEA.....	22
BIBLIOGRAFIA	28

0. SARRERA

Lan hau burutzeko artikulu ezberdinak irakurri ditugu, oso baliagarriak izan direnak hasiera batean bitartekaritzarako hurbilpen bat egiteko eta ondoren gehiago sakontzeko ere. Horrenbestez, gai ezberdinak jorratuko ditugu segidan eta artikuluen ekarpen eta ideia garrantzitsuenak aipatzeaz gain, taldean buruturiko gogoeta edo eta iritzi kritikoa landuko dugu lanean zehar. Taldean lan egingo dugunez, oinarritzko bibliografiaz haratago, klasean landuriko ideia edo eta lagungarri izan zaigun bestelako informazioa erabiliko dugu, beti ere erreferentzia eginez. Guztira bost gai ezberdin landuko ditugu segidan, horrenbestez lehenengoarekin hasiko gara.

1. BITARTEKARITZA ETA BITARTEKARITZA GIZARTE LANGINTZAREN ESKU HARTZE BEZALA

Lehen artikulua “Valor añadido del trabajo social en mediación” testua da. Artikuluarekin hasiz, interesgarria egin zaigun puntuetako bat “Bitartekaritza Gizarte Langintzako esku-hartze sozialean” dela esan dezakegu. Puntu honetan aditzera ematen du nola gizarte langintzak azken urteotan aldaketa soziala sustatzea, gatazkei aurre egitea eta giza-harremanetan sor daitezkeen arazoak konpontzea izan duen helburutzat. Helburu hau aurrera eramateko zenbait kasutan bitartekaritza erabili izan du teknika integratu gisa, bi aldean arrazoiak entzunaz eta adostasun bat aurkituz. Hau da, Gizarte Langintzako zenbait ikuspegi teorikok edo eta helburuk lotura zuzena daukate bitartekaritzarekin eta horren adibide da arazoak Perlman-ek (1957) aurkezturiko arazoak konpontzeko esku-hartze eredua esate baterako.

Rolei dagokionez, bi rol ezberdin aurkezten ditu: lehena bitartekaritza esku-hartze sozialean erabiltzen duen gizarte langilearen rola eta bigarrena berriz, bitartekaritza ekintza profesional espezifikoko gisa hartzen duen gizarte langilearen rola.

Hau horrela, lehenengo rolaren bitartez bitartekaritza funtzioa Gizarte Langintzan garaturiko zenbait ekintza ezberdinetan sartzen da, hau da, sistemaren barruan gertatzen diren arazoei irtenbide bat emateko jarduera multzo bezala agertzen da. Bigarrena rola berriz, arreta profesionalean oinarritzen da, honek, gatazkarekin zerikusia duten sistemako beste arazo batzuk erabili gabe hitzarmena edo bitartekaritza kontratua bilatzearen nahia suposatzen duelarik.

Gure aburuz, bitartekaritza egoki eta eraginkor bat aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da pertsonaren testuingurua ezagutu eta horren arabera esku-hartze pertsonal eta indibidualizatu bat egitea. Hau horrela, guk lehenengo rola eraginkorragoa ikusten dugu, izan ere, erabiltzaileek pairatzen duten arazo guztiak kontutan hartu behar dira bestela baliteke eta eginiko bitartekaritza prozesuak ezertarako balio ez izateak.

Ildo honetatik jarraituz adibide bat jar genezake: klasean ikusi dugun “Custodia Compartida” pelikulan bezalako kasu batean bitartekaritza bat aurrera eramaten badugu sistemaren baitako arazo guztiak kontutan hartu gabe eta soilik zaintzaren arloko negoziazio edo eta adostasun bat bilatuz, posible izan liteke umeen zaintza partekatu bat mantentzeko adostasunera iristea. Une horretan bertan, adostasun horrek, emakumeak pairatzen duen arazoa okertu besterik ez duela ikus daiteke. Hau bigarren rolean muturreko kasu bat izan daitekeen arren eta jakin badakigu kasu horretan bitartekaritza bat ez zela bidezkoa izango bi aldeetako baten ahalduntze faltagatik; garbi ikus genezake nola sistema barruan dauden arazo guztiak eta testuingurua bera kontutan hartzea beharrezko den, eta horretarako bitartekaritza Gizarte Langintzaren barruan modu integratu batean egin behar dela iruditzen zaigu.

Landutako bigarren artikulua, Alberto José Olalde Altarejos -ren “Bitartekaritza eta gizarte-langintza: eratzear den bikotea” izan da. Artikulu honen bitartez, bitartekaritzak eta gizarte langintzak batera lan eginez gero, lortu eta garatu dezaketena jorratzen da.

Bitartekaritza, gizarte langintzara gerturatzen denean eta alderantziz, bikote konplexua sortzen dute; konplexua eta osatua. Baina zenbaitetan, lehian ibiltzen dira bezeroen banaketan eta ez diote elkarri kasurik egiten, baina helburua da bien arteko lankidetzaren sortzea, izan ere, bi jakintza arloak elkarturik indartsuagoak dira.

Baryk 2007.urtean proposatu zuen konparaketa bati jarraituz, hiru ereduen arabera banatu dugu: bitartekaritzaren kasuan, interesetan oinarritutako eredu; gizarte langintzaren kasuan, esku hartze generalistaren eredu; eta zuzenbidearen kasuan, aurkarien eredu tradizionala. Hiru eredu hauetatik abiatuz, bakoitzaren ereduak, helburuak eta gatazkak aipatuko ditugu. Ereduei dagokionez, bitartekaritza, gatazkak konpontzeko prozesu espezializatu bat da. Honetan, gatazkatik kanpo dagoen pertsona bat inpartziala dena gatazkan dauden aldeei laguntzen die konponbide bat lortzen. Gizarte langintza, berriz, aldaketarako alor planifikatua da, eta alor horiek gizarte langileek gida bezala erabiltzen dute herritarron arazo psiko-sozialak konpontzen laguntzeko. Zuzenbidean, gatazkak legeak jasotzen dituen eskubide eta erantzukizunen

bidez konpontzen ditu; horretarako abokatuak dihardute bezeroen interesak defendatzen.

Helburuei dagokionez, bitartekaritzak interes komunak sustatzen saiatzen da, aldiz, gizarte langintzak herritarrei haien interesak sustatzen saiatzen da haien gaitasunak bultzatuz eta inguruko norbanako eta sistemekin elkartrukea erraztuz. Zuzenbideak, justizia sortzen du.

Gatazkei dagokionez, bitartekaritzarentzat gatazkak gertakari naturalak dira. Gizarte langintzarentzat, herritarren arazoak hainbat sistemen elkartrukea eragiten dute. Azkenik, zuzenbidean aldeetako bakoitzak abokatu profesional baten bitartez egiak eta justiziak azaleratzen saiatzen dira.

Argi izan behar duguna da bitartekaritza inpartziala eta neutrala dela eta dauden aldeek adosten dutela konponbidea eta arazoaren definizioa. Gizarte langintzan berriz, gizarte langilearen eta bezeroaren artean adosten da konponbidea eta arazoak izan dezakeen definizioa, beraz, inpartzialtasuna eta neutraltasuna guztiz alde batera geratzen dira. Azkenik, zuzenbidean, hasiera batetik inpartzialtasunaren eta neutraltasunaren ideia guztiz baztertuta geratzen da, bezeroak erabakitzen du arazoaren definizioa eta aholkularitza profesionalaren bitartez konponbide bat bilatzen da. Esan beharra dago gizarte langile batek bitartekari bezala jardun nahi izanez gero, bere rola aldatu behar izango duela guztiz inpartziala eta neutrala izateko.

Gizarte langintzak askotan bitartekaritzaren tresnak, teknikak eta gatazken eraldaketarako metodoak erabiltzen ditu, baina horiek erabiltzeak ez du esan nahi bitartekaritza egiten denik, izan ere, neutrala eta inpartziala izatea ezinbestekoa da bitartekaritza bat hasteko, erdibideko pertsona garelako eta ezin dugu herritar batekin konponbide bat bilatzen saiatzen baizik eta bi aldeen arteko komunikazioa eta negoziazioa sustatu behar dugu. Gizarte langintzak eta bitartekaritzak bizi kalitatea hobetzea dute xedetzat baina hori lortzeko era desberdinetan jarduten dute arestian aipatu bezala eginkizun eta helburu desberdinekin.

Esan beharra dago, familia bitartekaritzako lehendabiziko legea Espainia 2001. urtean onartu zela, hain zuzen ere Katalunian. Honek aurrerapauso handia egotea eragin zuen, izan ere, unibertsitate ikasketak, masterrak eta bitartekaritza zerbitzuen sorrera eragin zuen.

Azkenik, testuan ondorio gisa bikote bizimodu emankor bat lortzeko sei gomendio aipatzen ditu, bikotea metafora gisa erabiliz. Gomendioak ondorengoak dira: elkar onartzea, eskuzabaltasuna izatea, bi aldeei onurak ekartzen dituzten akordioak bilatzea, ulermena, sormena, miresmena eta goxotasuna.

Askotan esaten da gizarte langintzaren eta bitartekaritzaren artean mesfidantza eta arazoak daudela baina gure ustez, bien arteko lankidetzaren ezinbestekoa da, izan ere, esan bezala, biak batera indartsuago bilakatzen dira eta gatazkei konponbidea emateko modu eraginkorrago batean jokatzen dute. Bitartekaritzan gizarte langintzan bezala, pertsonarekin alde aurreko lanketa bat egin behar da eta ezagutu atzean dauden kausak. Aipatutako “Custodia compartida” filmean, argi ikus daiteke nola aldeetako bat ez dagoen ahalduntuta, eta bitartekariaren aurrelanketa falta da. Bestalde, filmean agertzen den egoeran ez da egokia bitartekaritza egitea, ez da benetan pertsona bakoitzaren testuinguruan dagoena ezagutzen. Horregatik, arestian aipatu bezala, bitartekaritza eta gizarte langintza era integratu batean lan egin behar dute, elkar lanean ibiliz.

Landu dugun hirugarren artikulua, María Pilar Munuera-ren “J. M. Haynes, Perlman, Chandler y otros autores internacionales en el recorrido de mediación y Trabajo Social” izan da. Artikulu honen bidez, Munuera-k internazionalak diren zenbait autoreek bitartekaritza eta gizarte langintzaren inguruan idatzitakoak bildu nahi izan ditu. Bertan ageri diren ideia interesgarri guztietatik, guk Susan Meyers Chandler-ek 1985.urtean bere artikulua baten bidez argitaratutako ekarpena azpimarratu nahiko genuke: gizarte langintzaren eta bitartekaritzaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak zehazki. Izan ere, gizarte langintza eta bitartekaritzaren inguruko artikulua landu ditugun heinean, interesgarria iruditzen zaigu horien arteko zenbait antzekotasun eta desberdintasunetan arreta jartzea.

Antzekotasunen artean, biek komunean dituzten zenbait balore azpimarratzen ditu: indibidualizazioa, parte-hartzea eta erabiltzaileen gaitasunen ahalduntzea; azken horretan enfasia jarri nahiko genuke. Izan ere, gizarte langintzaren helburuetako bat pertsonen ahalduntzea lortzea den heinean, bitartekaritza prozesu bat modu egokian aurrera eramateko ahalduntze hori bi parteetan ematea ere beharrezkoa da. Ahalduntzea ezinbesteko erraminta gisa ikusten dugu erabiltzaileen parte-hartzea sustatze aldera, eta bizitzan zehar topa ditzaketen muga edo gatazkei aurre egiteko; horretarako, gizarte langile zein bitartekariak ahalik eta egoera eroso eta konfiantzazkoena sortzea beharrezkoa izango da.

Nabarmendu daitezkeen desberdintasunei dagokionez, arlo bakoitzean aritzen diren profesionalen ingurukoak izango litzateke. Esate baterako, gizarte langileak erabiltzailearen motibazioa, gaitasunak, egoera sozio-ekonomikoa eta abar ebaluatzen ditu; eta aldiz, bitartekariak, ez ditu horrelako diagnostikorik burutzen. Hala ere, honen aurrean, bitartekaria hein batean bitartekaritza prozesuan zehar erabiltzaileen jarrerak eta sortarazten diren egoerak ebaluatu behar dituela iruditzen zaigu. Izan ere, arestian jarritako “Custodia Compartida” filmaren adibidearen harira, bitartekariak, kasu horretan kontuan izan beharko luke bi aldeak ahaldunduta egon behar direla prozesua modu egoki batean aurrera eramango dela bermatze aldera.

Horretaz gain, lehen esan bezala, beharrezkoa da erabiltzaile eta profesionalen artean konfiantzazko giroa sortzea. Horretarako, gizarte langintza zein bitartekaritzako esparruetan erabiltzaileen aldetik atera daitezkeen informazioa konfidentziala izango da. Hala ere, bitartekari batek oinarriko konfidentzialtasun arau batzuk zehatuko ditu bitartekaritza prozesuaren lehengo fasean eta ez dira parteek landu edo hitz egin nahi ez duten gaitaz arituko. Gizarte langilearen kasuan aldiz, konfidentzialtasun hori bermatu beharra dago, baina kasu batzuetan beharrezkoa da erabiltzaile batek emandako informazio hori senide edo bestelako zerbitzu profesional batekin konpartitzea; esate baterako, norbaiten segurtasuna arriskuan dagoenean.

Aipatu nahiko genukeen beste desberdintasunetako bat, prozesuak aurrera eramateko moduan egongo litzateke. Gizarte langile baten kasuan, prozesuaren nondik norakoak bere esku egoten dira. Bitartekaritzaren kasua, behin profesionalak oinarriko arau batzuk zehaztu dituelarik, parteek esku gelditzen dira prozesuaren nondik norakoak. Hau horrela izate ezinbestekotzat ikusten dugu parteek ahalduntzea bermatze aldera, beraiek izan behar baitira mugak edota aurrera pausuak eman behar dituztenak.

Hau guztiaz gain, Muruera-k dio gizarte langileak askotan bitartekari gisa aritu behar direla gizarteko edo familia arteko gatazketan.

2. BITARTEKARITZA FAMILIAREN GATAZKETAN

Bigarren puntu honetan irakurritako testuak, “Mediación familiar: un espacio de intervención para trabajadores sociales” eta Familia bitartekaritzarako zerbitzuak dira. Bertan testuen antzekotasuna nabaritu dezakegu, naiz eta bata datuetan oinarritzen den eta bestea teorietan. Bata artikulua bat da Luis Miguel Rondón Garcia eta Maria del Pilar Munuera Gomez idatzitakoa, bestea aldiz Eusko Jaurlaritzak 2016an ateratako txostena da. Ondoren bitartekaritza familiarraren laburpen bat ikusiko dugu.

Ikus dezakegunez, gizarteak hainbat aldaketa nabarmen pairatzen ditu etengabe. Hori dela eta, gatazkak eta eztabaidak ere erantzun ezberdinak behar dituzte. Gaur egun, geroz eta gehiago ikusten dugu bitartekaritza deritzon teknika. Gaur egun bitartekaritzak hartzen hari duen indarra oso handia da, geroz eta eremu gehiago biltzen ditu. Baita ere, denbora gutxian legeak ateratzen hasi dira Espainiako lurralde guztietan. Azken hamarkada hauetan esturturen aldetik aldakuntza nabariak agertu dira, horien artean familiaren eraldaketa izan da. Familia modelo klasikoetatik hasita familia eredu berrietara. Nahiz eta esan behar dugun, familia modu klasikoak nagusienak izaten jarraitzen dutela.

Teknika hau, gatazkan hirugarren pertsona bat sartzean datza, eredu neutrala izanik eta bi alderdien arteko adostasuna bilatzeko helburuarekin. Behar honi lotuta, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, familia bitartekaritzako zerbitzua eskaintzen du. 2016.urtean memoria bat sortu da Bizakaia, Araba eta Gipuzkoan egin den lana islatuz.

Hasteko, bitartekaritza zerbitzu honen helburuak honako hauek direla aipatuko dugu. Lehenik, bitartekaritza egiteko gune neutral bat eskaintzea ezinbestekoa litzateke, izan ere, pertsona guztiak eroso sentitu behar dira lasai hitz egiteko. Bigarrenik, pertsona guztien kogurasotasuna eta erantzukizuna sustatzea da, bizi duten egoeraren erantzule izaten lagunduz eta akordio batera iristeko gaitasunak garatzen laguntzea. Jarraitzeko, gorabehera emozionalak kudeatzea. Ondoren, egoera berrietara moldatzen laguntzea. Horrez gain, prozedura judizialen erabilera murriztea. Gainera, zerbitzu ezberdinekin sare-lana eta elkarlana sendotzea eta administrazioarekin elkarlanean aritzea. Azkenik, garapen teknikoan parte-hartzea hausnarketa, azterketa, hezkuntza eta ikerketaren bidez.

Bitartekaritzak dituen ezaugarriak helburuekin lotura izan dezan ondorengo hauek lirateke: izaera informatiboa izatea, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, komunikazioa errazteko gaitasuna, erantzukizun fenomeno gaiztatzea, garbi izatea ez dela terapia psikologikoa, bakoizpena, hau da, kasu guztiak ez direla berdinak kontuan hartzea eta azkenik, berdintasun plana.

Bitartekaritza familiarra indar handia hartu du azken urtetan, gaur egun zoriontasuna bilatzen da pertsonak beraien artean elkartzen direnean, baina erlazioak aldaketak sufritzen dituzte, hau da, zoriontasun hau ez denean ematen dibortzioak eta banatzean ematea normalena da. Dibortzio kasuak nabarki handitu dira eta judizialki egin beharrean modu bateratzaile batean egin daitezke gauzak, hau da, askotan bikotekideak ez dira akordio batera heltzen bai seme-alabengatik, bai ekonomikoki...horregatik abokatuak hartzen dute bidea eta gauzak modu judizialki egiten dira. Baina honetarako alternatiba bitartekaritza da, modu lasai batean akordio batera iristea. Naiz eta bitartekaritza hasiera batean modu boluntario batean egiten zen, gero zerbitzu sozialetan bidea hartu zuen.

Aipatu bezala, kasu guztiak ezberdinak dira, beraz, bi bereizketa egiten dira kasu motaren arabera. Alde batetik, bikotearen hausturaren egoeratik eratorritako gatazkak aurkitzen dira, eta bestetik, familia harremanetik eratorritako gatazkak.

Lehenengo gatazka motari dagokionez, hiru etapa bereizten dira: haustura baino lehen, haustura bitartean eta hausturaren ondoren. Zerbitzua erabiltzen duten familien %80ak akordio orokorrak lortzeko izaten da, %14ak akordio berrikuspena egiteko, %3ak gai ezberdinak direla eta, eta neurri txikiagoan seme-alabekin gatazkak aurrera eramateko erabiltzen dute.

Beste gatazka motari dagokionez berriz, hainbat harreman mota bereizten dira: Biloba eta hiloba harremanak, mendekotasuna duten pertsonak, belaunaldi arteko harreman gatazkak, elkarbizitzaren ondoriozko gatazkak, jarauspenei dagokionez, familia negozioak direla eta, bizikidetzarekin zerikusirik ez duten gai ekonomikoak eta azkenik, bikote hausturaren ondorioz seme-alabekin harreman gatazkak. Araban eta Gipuzkoan gehien eman diren kasuak belaunaldi artekoak izan ohi dira eta Bizkaian, bizikidetzak gatazkak.

Zerbitzu hau erabiltzen duten pertsonen profila ere hainbat esparrutan sailkatzen da. Familia motaren arabera, egoera zibila, bizikidetzak urteak, adina, herritartasuna,

jaioterria, bizitokia, ikasketa maila, lan egoera, bitartekaritza eskatzailea eta ahaidetasuna. Profil orokorra EAEko pertsona eszkonduak, 26-40 urte bitartekoak eta langileak dira.

Zerbitzu honetara hurbiltze moduak ohikoenak ahoz-ahoko zabalkundea eta gizarte zerbitzu eta administrazioen bideraketa dira. Baina badaude beste hainbat hain ohikoak ez direnak, elkarteen sarea, komunikabideak, arlo juridikoa, osasun arloa, erabiltzaileak izandakoak bueltatzea eta hezkuntza zentroak hain zuzen ere.

Bitartekaritza familiarrak hainbat ezaugarri ditu:

- Boluntarioa da eta kideak utzi dezakete edozein momentuan.
- Denbora kronologiko batean egiten da, bikotearen denborak errespetatzen.
- Partaidetza anitza: Bitartekariak ezin du kide baten alde jarri, bi aldeak lagundu behar ditu.
- Bi kideak bien arteko akordioak bilatu eta onartu behar dituzte, desadostasunak alde batera uzten.
- Errespetua eta kooperazioa beharrezkoak dira akordioak lortzeko.
- Hitz egiten den guztia konfidentziala da eta inoiz ez da informazio hau tribunal batean erabiliko.
- Bi aldeen arteko kooperazioa beharrezkoa da informazio guztia eskuratzeko eta negoziazioan aurrera egiteko.
- Adingabeen interesei lehentasuna emango zaie.
- Bitartekaritza familiarra ez du justizia ordezkatzeko nahi, baizik eta osagarria da.
- Erabakitzen den akordioa modu idatzi batean utzi behar da “bitartekaritza kontratuan” delakoan.

Gizarte langilearen ikuspuntutik ere onurak ditu bitartekaritzaren kontzeptua Bitartekaritzaren ibilbidea ikusten baldin bada, Espainian nahiko positiboa da, duela hogeit hamar urte inork ez zuen bitartekaritza ezagutzen, gaur egun aldiz nahiko garatuta dago. Gizarte langintzak bitartekaritzaren bidean lekua hartu dute, profesionalizatu delako.

Bitartekari batek oinarritzko balore batzuk izan behar ditu, eta gizarte langile batek dituenak ere aplikatu beharko ditu. Azken finean bitartekari lana egingo duen

profesional batek inpartziala izan behar du, bi aldeak ulertu behar ditu eta elkarrizketa gidatu. Lortzen duten erabakia edo emaitza komuna izan behar du, hau da, bi aldeak ados egon behar dute.

Amaitzeko, aipatu beharra dago nola izan daitekeen esku-hartze prozesu bat. Zuzeneko eta zeharkako esku hartzean bereiztu ditzakegu, baina gu zuzeneko esku-hartzean zentratuko gara. Prozesu honek hiru etapa ditu. Lehenengo arreta maila erabiltzaileekin hurreratzea telefonoz edo aurrez aurre litzateke. Bigarren arreta maila esku-hartzean zentratzen da. Eta azkenik, hirugarren arreta maila jarraipenari dagokio.

Testuan ikus dezakegunez, informazio teoriko asko eta erabilgarria daukagu. Baina praktikan askotan gertatu daitekeena gure espektatibetatik kanpo geratzen da. Izan ere, bitartekaritza prozesu batean erabiltzaileen enpoderamendua sustatu nahi da akordio batera iritsi ahal izateko bi parteak botere maila berdinean kokatuz. Baina zoritxarrez, gizarte honetan oraindik botere maila ezberdin asko pairatzen dira eta nahiz eta enpoderamendua sustatzen saiatu, beldurra edo mehatsuak direla eta, edo errealitatearen interpretazio ezberdinak, ezin da egia absolutua lortu. Hala ere, bitartekaritza oso teknika ona da kasu askotan, batez ere familia eremuan egiten denean, askotan ume adingabeak daudelako eta gauzak modu baketsuan konpontzeko aukera ematen du.

Bitartekariaren profesionaltasunari dagokionez, iruditzen zaigu nahiz eta teknika ugari aurrera eramaten jakin, pertsona guztiekin ezin direla modu berdinean erabili. Filmean ikusi dugun bezala, akordio justu batera iristeko, edo erabaki trinko bat hartzeko, kasua eta pertsona bakoitza ongi aztertu behar dira informazio guztia garbi edukitzeko. Filmean adibidez, lehenengo itxura batetik abiatzen da profesionala erabaki bat hartzeko, eta pelikula aurrera doan heinean, ikusi dezakegu erabakia ez dela egokia izan.

Ditugun baliabideak direla eta, ez da zilegi egoera edo gatazkaren puntu guztiak aztertzea, baina saiatu beharra dugu galdera eta bideratze egokiak egitea erabakia egokia den ziurtatzeko.

3. BITARTEKARITZA ESKOLA EREDUAN

Irakurririko lehenengo testua “Nola jarri abian, pausoz pauso, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritzako programa bat” izan da eta programa honen bitartez, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, ikaskideen arteko bitartekaritza-programen sorkuntza sustatu eta erraztu nahi da. Horretarako, aipatzen da bitartekaritzak duen garrantzia gatazkak ebazteko duen ahalmena dela eta.

Elkarbizitza plan hauetan sartzen diren programa, estrategia edo ekintzek oso ikuspegi eta eduki anitzak dituzte. Laburbilduta, 4 taldetan banatzen dira. Alde batetik, programa kurrikularrak hau da, ikasleek elkarbizitzarako eta gatazkak ebazteko baloreak, jarrerak edo trebetasunak garatzea helburua duena. Bestetik, gatazkak elkarlanean ebazteko programa edo estrategiak, eskolako elkarbizitzaren bizipen alderdia azpimarratzen duena, kideei eguneroko gatazkei elkarlanean eta era baketsuan heltzen laguntzen diete. Ondoren, diziplina positibo edo demokratikoaren programak, araudia eta zigor-diziplina funtsezkoa hartzen duen alderdia hain zuzen ere. Azkenik, parte hartzeko estrategiak edo mekanismoak, hau da, bertako kolektibo desberdinetako ordezkariak sartzea eskatzen dutena talde edo organo egituratuetan.

Eskola-bitartekaritza garrantzitsua dela babesteko, testuak zer den aipatzen du eta ze helburu dituen. definizioari dagokionez, testuak honako hau dio: “eskola-bitartekaritza gatazkak ebazteko metodo egituratua dela esan beharra dago. Bertan, hirugarren alde batek gatazkan dauden aldeei laguntzen die haien kezkek entzunez, komunikazioa erraztuz eta negoziatzen lagunduz”. Hau horrela izanik, lortu nahi diren helburuak, konpondu ezin daitekeen edozein gatazkei ekitea, ikasleen parte-hartzea, ikasleak gatazkak ebazteko trebetasunak hartzea, elkarbizitza hobetzea eta indarkeria mailak murriztea dira. Horrez gain, esan beharra dago eskola bakoitzaren berezitasunen arabera, plan eta programa egokituak ekin behar direla aurrera.

Hau aipatu ondoren, programa motak azaltzen ditu testuak. Lehenik eta behin, eredu bertikala: helduen aldetiko bitartekaritza proposatzen da. Eredu honetan, helduek egindako bitartekaritza izaten da, irakasle eta zuzendaritza taldeko kideek burutua hain zuzen ere. Hau izan ohi da aplikatzen errazena. Bigarrenik, eredu horizontala: ikaskideen arteko bitartekaritza dugu. Modu honetara, gatazkan dauden aldeen ikaskideak berak dira bitartekariak, eta hauek trebatze berezia jasoko dute. Hirugarrenik, jolastoki eredu dugu. Izaera informalekoa duena hain zuzen ere, eta

gatazka une eta toki horretan bertan gertatuko da. Laugarrenik, eredu bideratua legoke. Hau da, esku-hartze formala da eta ikastetxeko bitartekaritza-zerbitzuaren bidez lantzeko gatazkak agertuko dira.

Horrez gain, heziketa printzipioak eta oinarriak ere aipatzen ditu testuak, hain zuzen ere bitartekaritza prozesu batean konprometitzen garen printzipioak: boluntariorasuna, erabakitzeke autonomia, neutraltasuna eta inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna eta fede ona. Hala ere, esan beharra dago printzipio hauek ez direla soilik bitartekaritza prozesu batean aplikagarriak, baizik eta gure egunerokotasunean aurkezten zaizkigun edozein egoeretan ere erabil ditzakegu, eta eskolaren esparruan, bitartekaritza-programa honen bitartez, gatazka bakoitza, ikasteko aukera bat da.

Jada badakigu zer den bitartekaritza prozesu bat eskolaren barnean, eta zergatik den hain garrantzitsua honen praktika. Beraz, zein motatako gatazkei erantzuten dien adierazten du ondoren testuak. Hauek, hondatu diren adiskidetasunak, errespetu faltak, zurrumurruak eta gizki-ulertuak, helburu pertsonalak, jolaserako espazioak, bereizkeria edo zirikatzea edo baloreak. Horrez gain, aipagarriak dira ere ze gatazka mota ez diren bideragarriak sistema honekin: bitartekaritzaren printzipioak betetzen ez badira, ikastetxeko araudiak zehazten duenean egoera diziplinaren bidetik zuzendu behar bada, botere desoreka handia dagoenean edo pertsonarteko gatazka ez denean, edota gaiak ez direnean negoziagarriak.

Aurreko teoria guztia argi izanda, programa martxan jartzea falta da, eta horretarako, ikastetxeen konpromisoa behar da lehenengo pausua, izan ere, horren baitan dago programaren bideragarritasuna edo iraunkortasuna. Ondoren, programaren talde koordinatzailea izendatu behar da eta honek, programaren plangintza eta garapena zuzendu eta kudeatuko ditu. Jarraitzeko, prozesu guztia martxan jartzeko eta aurrera eramateko beharrezko baliabideak definitu beharko dira eta kronograma egin. Ondoren, helburuak, programa mota, nori zuzendua izango den eta ze gatazka motak landuko diren zehaztu beharko da.

Bitartekari-taldearen hautaketari dagokionez, bitartekari ona izateko, komenigarria dela zenbait gaitasun edo ezaugarri izatea esaten digu testuak, hain zuzen ere lidergo ahalmena edukitzea, errespetatua izatea edo konfiantzan ematea, lagundu nahi izatea, hizketarako erraztasuna izatea, pazientzia izatea eta lasaitasunari eustea, umorea izatea, inizatiba izatea eta konpromisoa edukitzea. Aukeraketa, prozesu baten bidez egingo da, lehenengo, ikasle bakoitzari esango zaie beraien ustez bitartekari onak izango diren hiru

gelakideren izenak emateko, heuren burua ere kontuan izanik, eta irakasleek ere bere zerrenda egingo dute. Ondoren, bi zerrendetan dauden ikasleei elkarrizketa egingo zaie eta ikastetxearen kopuruaren arabera batzuk aukeratuko dira. Ondoren, ikasle hauek prestakuntza bat jasoko dute bitartekari lana egin ahal izateko.

Amaitzeko, testuak aipatzen du garrantzitsua dela prozesua burutu ondoren ebaluazioa egitea. Ebaluazio honetan, bitartekaritza-programaren iraunkortasuna denboran eta bere funtzionamenduaren kalitatean oinarritutako ondorioak aterako dira. Honek, erabaki honeak hartzen laguntzen du, eta programaren hutsuneak eta indarguneak aztertuz, hurrengo urterako programa hobetu ahal izango da, horregatik litzateke hain garrantzitsua ebaluazio egoki bat egitea.

Bigarren testua “Eskola-elkarbizitza hobetzeko programak eta estrategiak” izan da eta honi dagokionez berriz, ikastetxeetan elkarbizitza eta bakerako heziketa hobetzeko inplementatzen diren 13 neurri eta estrategia ezberdin zehazten dira. Gida hau lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irakasleei, zuzendaritza-taldeei eta hezkuntza alorreko beste profesional batzuei zuzenduta dago. Esan bezala 13 estrategia ezberdin aurkezten badira ere, guk soilik interesgarrienak iruditu zaizkigunak azalduko ditugu. Aipatu beharra daukagu, bitartekaritza programa ere jorratzen den arren ez dugula aipatuko, jadanik aurreko testuarekin landu baitugu.

Hasteko adimen emozionalaren programa egongo litzateke. Adimenn emozionalak bost gaitasun mota eskatzen ditu, lehen hirurak pertsona barruko izaera dute eta beste biek berriz pertsonarteko izaera: kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, trebetasun sozio-emozionala eta pertsonaren bizitzarako eta ongizaterako trebetasunak. Trebetasun hauen gabeziek eragina dute ikasleengan, hau honela, heziketa emozionala beharrezkoa da eskola esparruan. Aipatu beharra dago ere esku hartzeko ereduak oso anitzak direla.

Lankidetzaren jolasekin jarraituz, hauek jarduera guztiz ludikoak dira eta heziketa izaera eta hezteko ahalmen handia dute. Guztien elkarlana eskatzen dute emaitza lortzeko eta horrela, lehiakortasuna ezabatzen da, izan ere, prozesura zuzendua dago eta ez emaitzara. Nabarmena da lankidetzaren jolasaren, eskola-elkarbizitzaren eta bake- heziketaren arteko harreman estua.

Dilema moralek berriz, egoera hipotetiko edo errealean kontaketa laburrak dira, balore gatazka bat planteatzen dute eta egoera hori konponduko duen erabakia hartzea eskatzen

dute. Dilemari proposatutako irtenbidea arrazonamendu moral batean oinarritu eta zuzenena jotzen dena izan behar da. Zenbait helburu ezberdin ditu eta aintzat hartu behar dira funtsezko alderdi batzuk. Fase ezberdinetatik igarotzen da: dilemari aurre egin, hasierako jarrera, eztabaida talde txikian, eztabaida orokorra eta norbanakoaren azken jarrera.

Amaitzeko, belarri-ahulkiaren eta aho-aulkiaren txokoak ikasleei gatazkak autonomoki, pertsona heldu baten laguntzarik gabe ebazteko aukera ematen die. Ikasleen arten izaten diren intentsitate baxuko pertsonarteko gatazkak ebazten dira ondoen. Bi aulki jarriko dira, bakoitzaren funtzioa izango da eseriko denari rol bat ematea eta hau horrela, prozedura bat jarraitu beharko dute: aho-aulkian dagoena hasiko da lehenbizi hizketan eta besteak isil isilik eta arretaz entzun beharko dio, behin amaitutakoan lekuz aldatuko dute eta besteak hitz egingo du. Horrela, adostasun batera iritsi arte.

Behin bi testuak laburtu ondoren, esan beharra daukagu eskoletan bitartekaritza programa bat egitea oso interesgarria iruditzen zaigula, bai hezkuntza aldetik baita ere pertsona emozionalak garen aldetik ere. Izan ere, gaur egun arte eskoletan material “superfizialean” zentratu gara eta ez emozionalean edo pertsonaren gaitasun ezkutua sustatzen. Horrez gain, bigarren testuan agertzen diren estrategia ezberdinak erabiltzea ere guztiz praktikoa iruditzen zaigu eta bitartekaritza programa batekin osagarriak diren heinean, kontuan hartzekoak izan behar dira.

Praktika hau aurrera eramanez, ez dugu soilik azterketa bat gainditzeko prestakuntza jasotzen, baizik eta pertsona guztiak dugun egunerokotasunean topatzen garen gatazkei aurre egiten. Beti baitditugu desadostasunak familiarekin, lagunekin, bikotearekin edo ikaskideekin ere, eta oztopo hauek modu egoki batean gainditzeko ez badakigu, arazo huts batetik gatazka batera jo dezakegu. Dilema-moralen estrategiak esaterako, horrelako kasuetarako trebatzen gaituela esan daiteke, izan ere, planteatzen diren arazo horiek etorkizun batean guri gerta dakiguen arazo errealak izan ohi dira, horrenbestez, ondo etor daiteke dilema moral ezberdinak lantzea.

Hau guztia esanik, aipatu nahiko genuke gure ustez testuan aipatzen duen zatirik garrantzitsuena. Hain zuzen ere, bitartekari taldeari buruz hitz egiten duenean, aipatzen du prestakuntza jasotzerako unean ikastetxetik kanpoko aditu batengana jotzen duela lehen urtean, baina ondoren irakasleek jarraitzen dutela erreleboarekin urteetan zehar. Hau garrantzitsua iruditzen zaigu programarekiko konpromezua eta begirune ona erakusten duelako. Izan ere, modu honetara ikastetxearen aldetik interes bat ikusten da

eta honek ikaslegoen artean ere sinesgarritasun handiagoa sortuko du.

Horrez gain, aipatzen da ere trebakuntza jasotzerako orduan, hau, pertsona guztiei zuzendua izango dela, eta ez bakarrik bitartekari izan behar diren ikasleentzat. Oso pausu handia dela iruditzen zaigu, alde batetik ikasleak beraien artean integratuta sentitzeko aukera ematen duelako, eta modu honetara ez dagoelako ikasleen arteko bereizketarik. Bitartekari bezala aukeratuak izan ez direnak ez dira aukeratuak izan direnak baino gutxiago sentituko, prestakuntza bera jasoko baitute. Eta bestetik, oso aberasgarria den eta egunerokotasunean praktikan jartzeko aukera dagoen informazio eta trebetasun bat jasoko dutelako ikasle guztiek, denei aukera berdinak zabalduz.

Amaitzeko, klasean ikusi dugun bideoari buruz hitz egin nahi dugu, izan ere, ikasle eta irakasle baten arteko bitartekaritza ikusteko aukera izan dugu. Bertan, bitartekariak oso ongi azaldu dizkio alde bakoitzari bere eskubide eta betebeharrak, gainera, prozesu honek dituen ezaugarri eta prozesua ere azalduz. Ikusi dugunez, pertsona bakoitzak errespetuz jokatu du eta akordio batera iristeko gai izan dira. Baina esan beharra dago, askotan bitartekaritza batek bere fruituak emateko hainbat eragozpen izan ditzakela. Adibidez, ikasle eta irakasle baten arteko erlazioa botere-harremanean oinarrituta dago, eta nahiz eta teoria buruan izan, gerta daiteke ikaslea desabantailan sentitzea eta honek bidezko akordioetara iristeko oztopoak ekarri ditzake. Horrez gain ere, bi adin horietako ikasleak dinamika hauetara ohituta ez daudenez, gerta liteke konfidentziasuna ere ez errespetatzea.

Egoera hauen aurrean oztopoak ikusten ditugu programa honen aurrean, beraz, gure ustez arazo hauek prebenitzeko eta ekiditeko oso garrantzitsua litzateke formakuntza egoki batez gain praktikara eramanez ahal izateko saio txikiak egitea ere.

4. KOMUNITATEKO BITARTEKARITZA

Komunitateko bitartekaritza lantzeko asmotan, alde batetik, Gabriela Rodríguez-en “¿Comunidad? Mediación comunitaria, habitar efímero y diversidad cultural” artikulua, eta bestetik, Getxoko Udalak argitaraturiko “Erkidegoaren bitartekaritza eta bake kulturari buruzko Getxoko I. jardunaldiak” artikulua irakurri, aztertu eta horien inguruan hausnartu behar izan dugu. Bi artikuluek, esan bezala, bitartekaritza komunitarioaren ingurukoak dira.

Hasteko, Rodríguez-en artikuluari erreparatuko diogu. Izan ere, komunitate kontzeptuaren sorrera, nondik norakoak eta garapena azaltzen ditu; eta horri estuki loturik dagoen bitartekaritza komunitarioari ere sarrera egiten dio.

Aipatu beharra dago, komunitate kontzeptua XIX. mendean garatu zela Ferdinand Tönnies-en eskutik “Comunidad y Sociedad” idazlana argitaratu zuelarik. Horretan, jendeak espazioa eta denbora beste batzuekin partekatzeko bi modu zituztela azaldu zuen: komunitatean eta gizartean. Hala ere, Rodríguez-ek ondo dioen moduan, kontzeptu horiek sortu ziren garaiko testuingurua zein marko teorikoa nabarmen aldatu dira, eta hori dela eta, kontzeptu horien XIX. mendeko kontzeptualizazioak ez du gaur egungo egoerarekin bat egiten; horiek berregituratzea beharrezkoa izanik.

Tönnies-ek, jendeak hirietako erdiguneetara lan eta bizileku baten bila joateko ohitura zuten garai batean idatzi zuen. Hau horrela izateak, hiritarrek leku fisikoarekiko zein lankideekiko lotura sortzea eragiten zuen; izan ere, denbora zein espazioa elkarrekin partekatzen zuten, komunitateko kide izatearen sentimendua sortuz.

Rodríguez-ek horren harira, hiriko bizitza asko aldatu dela dio. Lan postu prekarioek; erdiguneko etxebizitza desegoki, uniforme, marginal eta ekonomikoki eskura ezinek; migrazio masiboek; eta abarrek, gaur egungo hiriak dibertsitate anitzeko eszenatoki bihurtu direla azaltzen du. Egoera honakoa izanik, espazio fisikoarekiko zein sozialarekiko lotura ezartzea oso zaila da; komunitateko kide izatearen sentimendu sortzea oso zaila bilakatuz.

Hala ere, esan beharra dago, Tönnies-ek hiru komunitate mota bereizten dituela (senidetasunezkoa, adiskidetasunezkoa eta auzotasunezkoa) eta horietako bat gaur egungo komunitate kontzeptuaren ikuspegiari gehien gerturatzen dela, auzotasunezko

komunitatea hain zuzen ere. Honakoa, bizilekuen gertutasunean oinarritzen da gertutasun hori ez ematea posible izanik, baina bai ohitura edo erritual zehatzak partekatzeak izugarrizko garrantzia du.

Beraz, Rodríguez-ek artikulua bidez ondo azaldu duen moduan, gizartean emaniko aldaketek zuzenean eragiten dute komunitate kontzeptua ulertzeko erari. Izan ere, arestian esan bezala, egoera ekonomikoen desorekek, lan postu prekarioek, migrazioaren ondoriozko aniztasun kultural zein etnikoak eta abar moduko faktoreek, egun komunitate sentimendua sortzea oso zaila da; izan ere, egoera anitz horiek zenbait ikuspuntu anitz dakartza, belaunaldi arteko zein kultura arteko gatazkak sortzea, ez baita lortzen XIX. mendean egokitzen eta bideragarritzen hartzen zen ikuspegi homogeen hori.

Era honetan, guk bat egiten dugu Rodríguez-ek esandakoarekin, non aniztasun eta desberdintasun horietaz komunitatea zein gizartea aberastu egin beharko zela, lehiakortasunez eta segurtasun ezez jokatu beharrean.

Guk argi ikusten dugu, gizartea aldatzen doan heinean, horri loturik dauden kontzeptuak egokitu egin behar direnaren ideiarekin. Izan ere, ikusi dugun moduan, mende batetik bestera izugarrizko aldaketak jasan ditu, eta zenbait kontzeptuk jada ez dute gaur egungo errealitatearekin bat egiten.

Komunitate kontzeptuari dagokionez, gaur egungo egoera horrekiko oso ezkorra dela iruditzen zaigu. Izan ere, gaur egungo egoeraren harira, gizartean gailentzen diren lehiakortasun, indibidualizazio eta bestearekiko intseguritateak komunitate sentimendu hori sortzea oso zaila ikusten dugu. Desberdintasuna denarekiko beldurra edo onarpen eza oraindik jendearen artean ikus daitekeen zerbait da, errepresentazio ezaren sentimenduak ere gaitzespena sor dezakelarik.

Hau horrela, gaur egungo komunitate berriaren harira, horren baitan eman daitezkeen gatazkei aurre egiteko bitartekaritza komunitatearen bi modu desberdin proposatu dira: integrazio bitartekaritza eta bitartekaritza dialogikoa. Lehenengoa, gatazkan ari diren pertsonen interes, behar, onura, ... komunitetan oinarritzen da; elementu komunitetan oinarrituz, etorkizunera begira lan egiten dela dio idazleak. Bigarren moduari dagokionez, dialogikoari, honakoa errealitatearen eraikuntza-deseraikuntza-eraikuntza-n oinarritzen da. Bitartekariak, bi parteek beraien diskurtsoa eraiki dezaten laguntzen du; ondoren, bi diskurtsoak bata bestearen ondoan jarri eta kuestionatu egiten ditu; azkenik, zalantzan

jartze horrek, bi diskurtsoak komunean dituzten elementuetan oinarrituz hirugarren diskurtso bat sortzea du helburu, errealitatearen inguruko ikuspegi berri bat sortuz.

Rodríguez-ek azaldutako bitartekaritza komunitarioaren bi modu hauei dagokionez, bigarrena egokiagoa dela ikusten dugu. Izan ere, hasiera batean bi parteei beraien errealitatea azaltzeko aukera ematen zaie, baina horren ostean, errealitate horiek zalantzan jartzen dira. Horren bidez, bakoitzaren errealitatea errespetagarria den arren, beti errealitate objektiboarekin bat egiten ez duela frogatu daiteke; hau da, norberarena beti ez dela guztiz zuzena izango. Gainera, horren ostean errealitate komun bat sortzeak, objektibotasun horretara gehiago gerturatzea eragingo luke; bi parteen malgutasuna, enpatia eta elkarlana lortuz.

Aipatu beharra dago, bitartekaritzaren kontzeptua denboran asko aldatu den kontzeptu bat izateaz gain, asko garatu den kontzeptu bat ere badela. Geroz eta ezagunagoa da alor desberdinetan; hala nola, politika arloan, instituzioetan eta abar.

Garapen hori, hasieran izendatutako Getxoko Udala-k argitaraturiko “Erkidegoaren bitartekaritza eta bake kulturari buruzko Getxoko I. jardunaldiak” artikuluan argi azaltzen da. Esan bezala, bitartekaritza hitza asko zabaldu da, eta gaur egun jada, politika, erakunde eta gizarte-harremanetako esparruetan entzun dezakegu besteak beste.

Deigarria egin zaigu artikuluan ageri den bitartekaritza erabiltzearen helburuen atala; bertan, Europa mailan zenbait esparrutan bitartekaritza erabiltzearen helburuak eta bitartekari mota desberdinak aipatzen dira.

Hasteko, lehenengoak, “ez ditu bitartekotzaren printzipio etikoak zehazki errepresentatzen, baina ebaluazioak oro har positiboak dira” (Getxoko Udala, 2005). Mota honek, gizarte-kontrola du helburu; poliziak eta gizarte langileok aurrera eraman ezin dezaketen kontrol mota bat sortzea zehazki. Honen baitan, bitartekariaren eginkizuna (bitartekari kasko urdina-ren eginkizuna) bake soziala babestea eta lehenengo pertsonan gizartean ematen diren desorekak aztertzea izango litzateke. Komunitateko kideekin hitz egiten dute eta auzoetan ematen diren gatazka txikiak erregulatzen saiatzen dira. Bitartekaritza egiteko modu hau oso aberasgarria izan daitekeela ikusten dugu, izan ere, bitartekaritzaren irudi instituzionalizatuarekin apurtzen du eta modu “informalago” batean gatazkak konpontzea. Gainera, modu horretan komunitatearen espazio fisikoa zein soziala azal eta hezurrez ezagutzeko aukera du profesionalak, eta bertako kideei gertutasun

gehiago transmititzeko aukera.

Bigarrena, etorkinen egokitzapenaz arduratzen da; hau da, integrazioa du helburu gisa. Bertan, bitartekariak kultura arteko edo gizarte-bitartekari (edo bitartekari txaluparia) moduan ezagutuak dira; gehienetan etorkinak izaten dira eta beraien zereginak “atzerritarren eta erakundeen arteko harremanak erraztea, haien hizkuntzak eta logikak ezberdinak baitira; izapide administratiboak egiten orientatzea edo laguntzea; senideak jasatea hezkuntza-arloari dagokionean...” (Getxoko Udala, 2005) dira besteak beste. Bestalde, Europa iparraldeko zenbait herrialdeetan, emakumezkoei laguntzeko programen bidez, horietako parte diren batzuk bitartekari lanak egiten dituzte etorkinei lagunduz; era horretan, beraien ahalduntzea indartzen da. Bitartekaritza egiteko modu hau ere oso interesgarria egin zaigu, izan ere, elkarrekiko laguntza sustatuz, komunitatean eman daitezkeen arazoak konpontzeko beste era bat da. Iparraldeko zenbait herrialdeetan egiten denari erreparatuz, kolektibo desberdinetako kideak bat egin eta elkar laguntzen dutela ikus daiteke. Modu horretan, Rodríguez-en testuaren harira aipatu ditugun gizartean barneraturik dauden lehiakortasun, indibidualizazio eta intseguritateari aurre egin daitekeela uste dugu.

Eta hirugarrenari dagokionez, honek, elkarrekiko komunikazioa eta ulermena erraztea du helburutzat, tolerantzia eta onarpena sustatuz. Bitartekaria (bitartekari emagina), “oso adeitsua da bitartekotzaren printzipio etiko klasikoekin “ (Getxoko Udala, 2005). Elkarteak izan arren hauek ezartzen dituztenak, normalean udalen bidez finantziatzen dira.

Beraz, behin bi testuak landurik, argi ikuste dugu komunitatearen eta horri loturiko bitartekaritza komunitarioak izugarrizko aldaketak jasan dituztela. Izan ere, arestian esan bezala, gizartea eta errealitatea aldatzen doan heinean, beharrezkoa dugu horrelako kontzeptuen berregituratzea. Gainera, kontuan izanik bitartekaritza prozesuak boluntarioak direla, horrek parte-hartzaileen parte-hartzea, konpromisoa, inplikazioa, elkarlana, enpatia, errespetua, gatazkak konpontzeko autonomia eta abar moduko balioak sustatuko lituzke komunitate zein gizarte barruan; elkarbizitzarako ezinbestekoak direnak, komunitate sentimendua garatze aldera. Gainera, bitartekaritzaren onurak ikusgarriak direla antzeman dezakegu, eta hori dela eta zenbait alor desberdinetara garatu dela eta garatzen ari dela ikusi ahal izan dugu.

Hala ere, komunitateko bitartekaritzaren inguruan hitz egiten dugunean, ezin bestekotzat ikusten dugu genero ikuspegia kontuan hartzea. Hori dela eta, Andrea Galaverna-ren “Mediación comunitaria con enfoque de género” -ren hitzaldia aztertu dugu.

Hizlari honek, hasiera batean gizarteko genero roletan oinarriturik, gatazkek emakume eta gizonezkoen artean inpaktu bera izaten ez dutela dio. Horretaz gain, bitartekaritza prozesua aurrera eramateko eskaera egiten duten gehiengoak emakumezkoak direla aipatzen du. Eta hori gutxi balitz, ondo ateratzen diren bitartekaritza prozesu gehienak emakumezkoen artean edo emakumezko eta gizonezkoen artean emandakoak direla azpimarratzen du; hau da, askoz zailagoa egiten dela gizonezkoen arteko bitartekaritza prozesuak aurrera eraman eta akordio batera heltzea. Izan ere, esan bezala, gizonezko eta emakumezkoek gatazkak interpretatu, kudeatu eta konpontzerako orduan desberdin jokatu ohi dugu, genero rolen inpaktuaren ondorioz.

Horren aurrean bitartekaritza komunitarioa genero ikuspegitik egitea betebeharrak etiko modura definitzen du Galaverna-k. Izan ere, gatazka batean emakumezko eta gizonezkoen interesak ez dira homogeenak izaten, parteen posizioak ere roletan eragina jasotzen dute eta abar.

Horretaz gain, hitz egiteko era ere kontuan hartu behar dela dio; azken finean, hitz egiteko erak, norberaren pentsatzeko eta sentitzeko erak azaltzen dituelako. Horretan, genero zein botere harremanak azaldu daitezkeelarik.

Amaitzeko, genero indarkeria kasuei ere erreferentzia egitea nahiko genuke. Genero indarkeria ematen den kasuetan bitartekaritza prozesuak aurrera eramatea oso zaila dela ikusten dugu, izan ere, bi parteak ez daude kondizio berdinetan. Bitartekaritza prozesu bat aurrera eramateko, beharrezkoa ikusten dugu bi aldeak ahaldunduta egotea, aukeren berdintasuna izatea eta biolentzia kasuen moduko faktoreengatik influentziarik ez izatea. Hori dela eta, “Mediación comunitaria con enfoque de género” -ko hizlariak beharrezkoa ikusten du genero ikuspegia kontuan izatea, eta martxan jartzen den prozesu orotan aintzat hartzea.

5. JUSTIZIA KONPONARAZLEA

Justizia konponarazlearen gaia jorratzeko Alberto José Olalde Altarejosen “Mediación y justicia restaurativa: innovaciones metodológicas del trabajo social en la jurisdicción penal” testua landu dugu. Honetan, justizia konponarazlearen barruan biktima eta arau hauslearen arteko bitartekaritzari buruz hausnartzen da.

Justizia penala humanizatzeko oso bide luzea geratzen da oraindik; zuzenbide penala, hotza, urrutikoa, eta oso atsekabea da biktima, kaltegile eta gizarte osorako. Aldiz, justizia konponarazleak gatazka penaletan leunago esku hartzen du eta ez da hain prozesu bortitza, honetan emaitza hobek lortzen direlarik biktimen kaltearen konponketan eta kaltegileen arduran. Euskadin, 2007. urtean bitartekaritza penalaren lehenengo zerbitzua Epaitegira esleituta sortu zen, Barakaldoko hirian hain zuzen ere.

Saiatzen dena justizia konponarazlearen bitartez, biktimen protagonismoaren berreskurapena da izaera penaleko gatazken konponketan, izan ere, praktikatzen den justizian Estatuak bere burua definitzen du biktima bezala eta rol aktibo baten bitartez, arduradunari askatasunaren kontrako pena bat edo beste motatako zigorrak erabiltzen ditu.

Delituek pertsoneri eta komunitateei kalte egiten diotela aitortzen badugu, nabarmendu behar da justiziak kalte horiek konpondu behar dituela eta gertatutakoaren alde protagonistei prozesuan parte hartzera baimendu behar diela. Horretarako, justizia konponarazlean dauden programak, biktimei, kaltegileari eta kaltetutako komunitateko kideei bideratzen zaie era zuzen batean delituari erantzuna emateko. Honetarako ezinbestekoa da profesional egokien laguntza. Hasiara batetik lan egin behar da kaltetuak izan diren pertsonekin eta delituari erantzuteko parte hartzea eskaintzea funtsezkoa da.

Justizia konponarazlea nazioartean jokaera penalarari erantzuteko forma gisa ulertzen da, komunitatearen, biktimen eta kaltegileen beharrianak orekatzen saiatzen dena. Kontzeptu hau bilakaeran dago oraindik eta interpretazio desberdinak izan ditu herrialde, kultura eta ohitura juridiko desberdinetan.

Justizia mota honen balioak estu lotuta daude judu-kristau kulturaren printzipio zaharrek eta beti nabarmendu du delitua pertsonen eta familien kontra dela eta ez

Estatuaren kontra. Bestalde, lau balio nabarmentzen dira justizia konponarazlean: lehenik eta behin, errespetua kaltetua edo arau hauste batengatik inputatua dagoen pertsonaren duintasunari; bigarrenik, elkarrekiko ulermena eta gertatutakoaren aurrean erantzukizuna izatea; ondoren, pentsamenduen eta sentimenduen komunikazioa sendotzea; eta azkenik, inplikaturako pertsonen giza-beharrizanei erantzuteari lehentasuna ematea. Gizarte langintzak, aldiz, bere balio nagusiak Kode Deontologikoan argitaratuta ditu, hala nola, pertsona bakoitzarekiko ardura morala, justizia sozialarekin konprometzua, banakako en eta taldeen eskubideak errespetatzea... Esan beharra dago, bien arteko, hau da, gizarte langintzaren eta justizia konponarazlearen arteko balioak aurkitzen eta osatzen direla.

Prozesu konponarazletan, gutxienez lau osagai kritiko daude helburuak era zuzenean lortu ahal izateko: hasteko, biktima identifikagarria daukagu, bigarrenik, biktimaren parte hartze boluntarioa ezinbestekoa da, hirugarrenik, pertsona kaltegileak bere jokaeraren erantzukizuna onartzea beharrezkoa da, eta azkenik, derrigortze gabeko parte hartzea, izan ere, parte hartze duten aldeek nahi dutelako izan behar da, inor bortxatu gabe. Delitugileak aukera du gertatu dena aitortzeko eta biktiman izan dituen ondorioak ulertzeko, emozioak plazaratzeko, laguntza jasotzeko eta barkamena eskatzeko biktimei. Bestalde, biktimek parte hartze zuzen baten bitartez, beren egoerari buruz aurrez aurre hitz egiteko aukera, haien galderei buruz erantzunak jasotzeko aukera, haien talka azaltzeko aukera, barkamena jasotzea eta erlazioa berrezartzea beharrezkoa ikusten dutenean daukate. Honek, bi parteei lasaiago geratzea eragin dezake.

Sei prozesu konponarazle bereizi daitezke, hala nola, zeharkako elkarrizketa; biktimen eta delitugileen artean erraztutako elkarrizketa; biktimen, delitugileen, laguntza pertsonak eta gobernuko ofizialen artean erraztutako elkarrizketa; biktimen, delitugileen, laguntza pertsonak, gobernuko ofizialen eta komunitateko kideen artean erraztutako elkarrizketa; biktimen, delitugileen eta beste parteen artean bideratutako elkarrizketa; eta azkenik, biktimen, delitugileen eta beste parteen artean arbitratutako elkarrizketa.

Bitartekaritza prozedurak, ondorengo printzipio informatzaileak ditu: alde guztiek borondatez egitea, doakotasuna, konfidentzialtasuna, ofizialtasuna, malgutasuna eta bilaterala izatea. Printzipio hauek ezinbestekoak dira prozesua aurrera eraman ahal izateko.

Esan beharra daukagu biktimen eta kaltegileen arteko bitartekaritza ez dela aproposa kasu guztietan. Aldez aurretik lanketa pertsonal handi bat suposatzen du, eta mundu

guztia ez dago prest kalte egin dizun pertsonarekin aurrez aurre egoteko; delitu motaren arabera eta pertsonaren arabera dela esango genuke. Prozesu honekin hasia erabakitzen duten pertsonak, prozesu hotzak alde batera uztea nahi izaten dute, eta alde guztien lasaitasuna lortzea helburu izanik. Prozesu honek, galderak egitea eta horren bidez beste pertsona ulertzen saiatzea ahalbidetzen du; hau da, enpatizatzea. Bestalde, bitartekariaren lana ez da batere erraza, izan ere pertsonen sufrimendua eta egoera oso gogorak ikusten dituzte eta kasu horretan inpartziala izatea zaila izan dateke; izan ere, guztiok gure balio eta ideia propioak ditugu, gure jokabidean eragin eta alde batera uztea oso zaila egiten direnak.

“¿Hablamos” elkartearen “Documental mediación penal” bideoa aztertu dugu bitartekaritza konponarazlearen inguruan hausnartzeko. Bideoan bertan azaltzen dira biktimak batzuk eta kaltegarriak batzuk azaltzen haien esperientziak. Ikusi ahal izan dugu bakoitzaren bizitza pertsonala eragin handia duela; egun txarra ala ona duen, zer edo zer gertatu zaion... gatazka bat garatzerako orduan. Gehienek, bitartekaritza konponarazlearen inguruan hitz egiterakoan nahiko urduri jartzen dira eta aurrez aurre egoten diren lehenengo saioan hasierako momentuan ere oso urduri daude, baina denek bat egiten dute bitartekaritza mota hau probatu ondoren oso beharrezkoa dela. Aurrez aurre ikusterakoan beste pertsonaren egoera ulertzen da, ikusten da pertsona normal bat dela eta haren azalari jartzen laguntzen gaitu, eta honek aurrerapausoak ematera darama. Gehienek gatazka gertatu zen momentuan izan zuten erantzunaz damutzen dira, eta gehiago beste pertsonarekin aurrez aurre egon ondoren.

Eusko Jaurlaritzak urtero bitartekaritzari buruzko memoria batzuk plazaratzen ditu. Zehazki esanda Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (BJZ) izeneko eremutik ateratzen dira. Zigor bitartekaritzari buruzko urteko datuak ematen dira, eta hurrengo lehenengo 2015eko eta 2016ko memoriak ikusiko ditugu.

2015ean egindako memoria honako hau dio; Justizia lehen eratzailerak gatazkan tartean diren pertsonen beharrak aintzat hartzen ditu, eta biktimak jasandako kaltea, biktimak eragilearen gizarteratze positiboa eta erkidegoko gatazken baretzea elkarriketaren bidez konpontzea sustatzen duten komunikazio-espazioak antolatzen ditu. Justizia lehen eratzaileraren tekniken artean, biktimaren eta biktima-eragilearen auzitegi barruko

bitartekaritza aukera bikaina da, herritarrei arreta emateari dagokionez, kalitate hobeko justizia formaleko sistema bat eratzeke. EAeko barruti judizial guztietan eragile erabiltzaile juridikoen eskura jartzen den kalitatezko zerbitzu publiko bilakatu da. Memoriaren arabera, 2015. urtean ABBZk guztira 1.700 zigor-arloko gai aztertu ditu, baina Epaitegiek eta Auzitegiek bideratutako kasu kopurua, 1.443, 2014. urtekoa baino pixka bat txikiagoa da. 2015. urtean, gure Ordenamendu Juridikoan justizia lehen eratzaileria eta bitartekaritza lehen aldiz, erregulatzen dituzten legegintza-aldaketan eta -berrikuntzen prozesu bat gauzatu da.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak (BLZ) beharrezkotzat jotzen duenean organo judizialari zigor-arloko bitartekaritza proposatu ahal izango diola eta ABBZri laguntzeko jardunak egin ahal izango dituela, eta horregatik Justizia Zuzendaritzaren mende dauden bi zerbitzu horien arteko koordinazio eta lankidetzaren estua beharrezkoa da. Erreformatan, justizia lehen eratzaileriekin guztiz bat datorrenak, tipikoak izan arren prozesu bat irekitzea eta zigor-arloko zehapen bat jartzea justifikatzen duen astuntasuna ez duten jokabide asko egon ohi direla hartzen du oinarritzat, eta horregatik egokitasun- irizpide bat sartu da, Fiskaltzaren eskariz epaileei, gertakariaren garrantzi txikia eta interes publikorik eza balioetsita, prozedura largeteko aukera emango diena. Gainera, etendura arruntaren erregulazioan garrantzi berezia ematen zaio kaltearen konponketari, izan ere, etendura erabakitzeko kontuan izango baitira. Konponketaren garrantzia berriro bilduta geratzen da Zigor Kodearen 80.3 artikuluan, izan ere, “zigorraren betearazpena etengo da, baldin eta kaltea era eraginkorrean konpontzen bada edo kalte- ordaina ematen bada, errudunaren egoera fisiko eta ekonomikoen arabera, edota bitartekaritzan lortutako akordioa betetzen bada”.

Azkenik, Zigor Kodearen 84. artikuluan bitartekaritza-prozesua aipatzen du espresuki, honako hau adierazten duenean: “Epaile edo auzitegiak prestazio edo neurri hauetako bat betetzea ere galdatu ahal izango du, zigorraren betearazpena eteteko baldintza gisa: “Alderdiek bitartekotzaren bidez adostutako akordioa betetzea”. Amaitzeko, baldintzapeko askatasunaren aldia zigorra etenda egongo den alditzat joko da. Horregatik, orain inoiz baino gehiago, gure erkidegoan betearazpen-fasean bitartekaritzara bideratzea posible izango litzateke.

2016ko memoriei dagokionez hurrengo ikusi dezakegu. Justizia Lehen eratzailerik gizarte-harremanen, bakegintzaren, konponketaren eta erantzukizunaren leheneratzea

oinarri duen justiziaren alde egiten du. Teknika hauen artean Euskal Autonomia Erkidegoan, biktimaren eta biktima-eragilearen bitartekaritza judiziala aukera bikaina da. 2007. urteaz geroztik, EAeko Auzitegi barruko Bitartekaritza Zerbitzuak (ABZ) organo judizialen eta herritarren esku jarri du metodo hori.

Hemen 2016an zehar egindako datuak agertzen dira, ABZ gatazkak jorratu eta ebazteko bide gisa finkatu dela, bere lan karga jaitsi egin den arren, bideratutako eta erantzundako gaiak apur bat murriztu baitira. Datuen arabera, auzitegi eta epaitegien bideratze-kopurua jaitsi egin da, murrizketa hori, neurri handi batean, Zigor Kodetik faltak ezabatu izanagatik gertatu da. Kasuak bideratzeko ekimena oraindik ere oso- osorik dagokie organo judizialei, alderdien ekimenean igoera apal bat egon den arren. Bestalde, Fiskaltzaren ekimen-falta antzeman daiteke oraindik ere. Hau ikusita komenigarria litzateke inertzia aldatzea, hau da, Fiskaltzaren jarrera proaktiboa sustatzea. Modu honetan ona litzateke Biktima Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) protagonismoa areagotzea. Bideratutako delitu-motei dagokienez, eta praktika alderatuan ez bezala, zoritxarrez, Estatuko, eta, luzapenez, Euskal Autonomia Erkidegoko operadore juridikoen gainean konfiantza urria dago, zigor-maila handiko auziak kudeatzeko duten gaitasunaren gainean. Horren harira, ABZra egindako bideratzeen artean nabarmen gailentzen dira delitu arinak delitu ez oso larrien eta larrien aldean.

Zuzeneko eta zeharkako bitartekaritzaren arteko alderik esanguratsuena leheneratze-prozesuan parte hartzen duten pertsonen elkarrekin jarduteko modua da. Zuzeneko bitartekaritzan elkarriketa zuzena ezartzen da pertsonen artean, eta zeharkako bitartekaritzan, aldiz, harreman fisiko zuzena desagertu egiten da, eta zeharkako elkarrekintza sortzen da, komunikazio-modu desberdinen bidez. Zuzeneko bitartekaritzan elkarriketa gailentzen da adostasunaren aldean, eta zeharkakoan, aldiz, adostasuna nabarmentzen da, prozesua baino gehiago. Bi irizpide horiek programak era egokian garatzea eragozten dute. Izan ere, irizpideon ondorioz, programak adostasun hutsak lortzera bideratzeko arriskua areagotzen da, eta, hala, nazioarteko estandarretatik aldentzen da.

Atal honetan nabarmentzekoak dira izaera etikoko adostasunak eta jarrerazko adostasunak. Adostasunen emaitzari erreparatuz gero, datuen arabera bitartekaritza-adostasun gehienak bete egin dira. Bestalde, organo judizialek zailtasunak izan dituzte epai bidez adostutako erantzukizun zibilak betearazteko orduan. Memoriako datuen

arabera, gure prozesuetako praktikan, maiz, salaketa jarri duen pertsonaren alde egindako delitu osteko jarrera positibo lehen eratzailleek ez daukate benetako zehapen garrantzirik banakako zigorra zehazteko orduan. Alderdien artean adostasunik ez lortzeko arrazoi nagusiak honako hauek izan dira: arrazoi materialak eta arrazoi etikoak. Azkenik, azpimarratzekoa da 2016. urtean organo judizialek 2.870 pertsona bideratu dituztela ABZra, tartean 1.007 emakume eta 1.863 gizon, eta horietatik 1.475 pertsonak parte hartu dutela bitartekaritza-prozesuan.

Behin mi memoria hauek irakurrita, ikusi dezakegun lehengo gauza datuetan fijatzea da, urte batetik bestera ABZra bideratu dituzten pertsonen kopurua bikoiztu egin da. Hau seinale ona dela esan dezakegu, azken finean bitartekaritza ez da epaiketa bat ordeztan duen prozesua baizik eta osagarri dena. Gainera bitartekaritza aurrera eramateko bi aldeak ados egon behar dute, horrela elkarrizketa bat egongo da modu baketsu batean. Hau oso erabilgarria da gero epaiketa lasaitu bat emateko, azken finean kasu askotan prozesu honetan erabaki batetara heltzen da, bi aldeen onurarako edo bi aldeak onuradun ateratzen direla.

Delitu baten biktima izan direnek Biktimari Laguntzeko Zerbitzura jo dezakete. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren mendeko doako zerbitzua da. Zerbitzuaren helburua biktimei zigor-arloko sistemarekin duten harremanean laguntzea da eta edozein motatako delituen biktimei eskaintzen zaie arreta; batez ere, sexu-erasoen, etxeko indarkeriaren, larderiaz egindako lapurreten eta abarren biktima izan direnei. Hau geroz eta handiagoa den zerbitzua da, baita ere eskaria geroz eta handiagoa delako, hala ere, asko hobetu behar da hau eta zerbitzua hau asko areagotu behar da pertsona guztiak, batez ere emakumeak, bere gain hartzeko.

BIBLIOGRAFIA

- “¿Hablamos?” elkarte (2018). “Documental mediación penal”. (Bideo fitxategiak). (Kontsulta: 2019ko urtarrilaren 4a). Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=EMMSqiTIkw>
- “Mediación Escolar: Caso Profesor – Alumna”. (Bideo fitxategiak). (Kontsulta: 2019ko urtarrilaren 12a). Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=1XP07COagn4&feature=youtu.be>
- Centro de Formación de la Cooperación Española [CFCE Montevideo]. (2017ko ekainaren 14a). 'Mediación comunitaria con enfoque de género' - Andrea Galaverna [Bideo fitxategiak]. [Kontsulta: 2018ko urtarrilaren 3a]. Berreskuratuta: <https://www.youtube.com/watch?v=dQiIPTXvunI>
- Eusko Jaurlaritz (2015). Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (BJZ): zigor bitartekaritza. Txostena.
- Eusko Jaurlaritz (2016). Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (BJZ): zigor bitartekaritza. Txostena.
- Getxoko Udala (2005). Erkidegoaren bitartekaritza eta bake kulturari buruzko Getxoko I. jardunaldiak.
- Gorbeña, Lucia & Romera, Carlos (2013). *Nola jarri abian, pausoz pauso, ikaskideen arteko eskola-bitartekaritzarako programa bat*. Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila.
- Gorbeña, Lucia. *Eskola-elkarbizitza hobetzeko programak eta estrategiak*. Leioa: Leioako Udala.
- K.G productions & Legrand, Xavier. (2017). *Custodia compartida*. Francia.
- Mediación Trabajo Social (2014). *Valor añadido del trabajo social en mediación*. Consejo General del Trabajo Social.
- Munuera Gómez, M.P (2012). J. M. Haynes, Perlman, Chandler y otros autores internacionales en el recorrido de mediación y Trabajo Social. Universidad Complutense de Madrid. XII-2, 97-108.
- Munuera Gómez, M.P. eta Rondón García, L.M. (2009). Mediación familiar: un espacio de intervención para trabajadores sociales. *Trabajo Social*, (11), 25-41.
- Olalde Altarejos, Alberto José (2010). Mediación y justicia restaurativa: innovaciones metodológicas del trabajo social en la jurisdicción penal. *Miscelánea comillas*, 68, 133, 761-790.

- Olalde Altarejos, Alberto José (2012). Bitartekaritza eta gizarte-langintza: eratzear den bikotea. *Gizarte Langintzako V. Jardunaldia* (35.-51. or.). Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
- Rodríguez, G (2008). ¿Comunidad? Mediación comunitaria, habitar efímero y diversidad cultural.